

kontura argitaratu ahal izateko. Idazkaria gelditu da, lan hori Euskaltzaindiak osatzeko, beharko diran enkuesta eta fitxen modeloak berak gertatzeko, bibliografiak eskatzen dituen normetan.

Euskaltzain-buruak txosten bat irakurri du, bere hiru urteko buruztaren kontuemanez. Batasunari buruz gertatu diranei adierazpenak Euskaltzaindiak ez dituela gauzak *por decreto* bezala eman behar, *normative* baizik. Eta Euskaltzaindiak *neutral* izan behar duela holako gauzetan. Mitxelena jaunaren iritziaz gainera, beste iritzi gehiago ere entzun beharra zegoela. Batasunak oinarri zabala eta denbora eskatzen dituela eta abar.

Ondoren zenbait eztabaida sortu da, Arantzazun bide bat behartu ez bazan ere, bide bat markatu zala eta hortara ahalegindu beharra dagoa. Beste batzuen iritzian, bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea izan behar du. Batez ere H letrati buruzko eztabaidak izan dira gainerako normak ahotan hartu gabe. Diharce mintzo da; mugazandikoen izenean, esanez, sentitzen duela berek beharrezkoa duten letra horregatik besteak hain asarre ibiltzea. Berek letra hori ahal izan duten guzian kendu dutela, baina bokalarteetan, demostratiboetan eta zenbait nitzetan hain beharrezkoa dutenez hor utzi ezina dala. Eztabaida beroak iraun du ezertariko erabagirik hartu gabe.

Aita Intza-koak irakurri du txosten bat, H letra euskera idatzian noiztikoa eta zelan sartua don, XVI eta XVII-gn. mendeetan. Baina bere agerpenak ikusi da ez direla berak agertzen dituen bezala, nornahik Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca*, *Textos arcaicos vascos* estudioetan edo XVI-gn. mendeko literaturan argi ikus ditzakean bezala. Hon-taz ere, eztabaidak lehenera jo dute.

Bukatzeko, kontu eman da liburutegirako hartu diren titulu berriena: X. Gereñok bere *Arantzaz artean*, Anastasio Arrinda (Anes Laskau-kok), *Juantxo-triki* eta *Oto ta Pototo*, A. Zubikarayk *Motrico* (Apuntes, extractos y divagaciones), eta J. San Martin-ek *Uhin berri* liburuak. Guztientzat bijoaz eskerrak.

Ohi dan otoiitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua
MANUEL LEKUONA

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1970-II-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1970-eko otsailaren 28-an, goizeko 10 terdietan.

Bildu dira: M. Lekuona buru, Diharce "Iratzeder", Erkiaga, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Larzabal, Villasante, eta Zabala euskaltzainak;

Altuna, Aresti, Beobide, Berriatua, Berrojalbiz, Berrondo, Estornés (José), Etxaniz, Garmendia (Jon), Garmendia (Salbador), Gereño, Goicoetxea (Gaztelu), Kintana, Lizundia, Oleaga, Oñatibia, Saizarbitorja, Sarasola, Zatarain eta Zugasti euskaltzain laguntzaileak, San Martin idazkari dala.

Ohi dan otoiitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria ontzat hartzeko orduan, Zatarain-ek dio, H-ak Arantzazun errekomentatutakoak baino gehiago sartzen direla agirian, zeren han

jasotako agiri harek zionez: “*H*-ren hauzian, izan diran iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindik letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ondo ikusiak izango.” Gorago jo nahi dutenenak etzirela errekomentatuak, bere iritzi.

Idazkariak dio, agiriak argi dion bezela, gorago jotzea ere ezjala gajzki ikusia, eta erabagi zehatz bat hartzen ez dan artean ia zergaitik ez duen erabiliko. Gainera, agiritan *H*-ak erabiltzea Arantzazuko bilerak ondoren goragokoei baimena eskaturik egin zuela, eta hortarako Arantzazuko agiria bera eredu harturik, *H*-etan gorago joaz. Eta galdetzen du, ia besteak, Euskaltzaindiko guziak, zergaitik ez diren ahalegintzen erdibide mailarako autatu zan era erabiltzera; ia errekomentatuko *H* haiek erabiltzera behartu ez diranek zeren kexu izan behar duten.

Hontaz izan dira eztabaida batzuek.

Iratzeder jaunak berritzen du lehenago esana, beren aldetik amore emana dutela *H* letrarekin zenbait lekutan, baina beste batzuetan euskeraren onerako dalako eskatzen du hemengoak erabiltzea, batez ere bokal berdinak dauzkaten hitzak eta gainerako premiazkoenak soilki; eta beste guzietan, bakotzak agiri dezala bere euskalkiaren edo iritzia- ren arabera: *H* eman ala ez eman.

Erkiagak dio, Bizkaiko euskaltzalerik gehienak *H*-ren kontra daudela. Baina beste bizkaitar batzuek irten dira ezetz esanez. Iritziak ebakita daudela argi ikusten da.

Idazkariak kontu ematen du, Losada izeneko polizia jaun bat joan zitzaiola, euskaltzain-buruarekin mintzatu ondorean, *Elsa Scheelen*-ri 1968-ko “Txomin Agirre” saria zelan eman zitzaionaren xehetasunen eske. Sariketaren araudiaren kopia bat eman zitzaiola eta izendatutako mahaiburukoak zelan erabagi zuten, egile nor zen jakin gabe.

Arenazatar Josuk bialdu duen orri baten berri ematen da. Ikusten denez Euskaltzaindikoen artean zabaldua. Idazkariak adierazten du, bertan esanekin ez datorrela ados, eta, gainera, Bilboko “Hoja del Lunes”-ean egin zituen deklarazioak bere egunean Euskaltzaindik egin beharrezkoak zirela, baina nolabait alderantziak zirela. Hortaz, lehendik ere kontu emanez argitasun batzuek adierazi nahi zituela, eta orain ere txosten bat gertatua dela, baina euskaltzain-buruak, bake biderako isiltzea hobe zala ta, horrela galditzen da.

Deba-ko Asociación para el Fomento de la Enseñanza y la Cultura dalakoaren zuzendari dan Patxi Aldabaldetrekuk egin duen ahozko eskaria, alfabetatzo kanpainak bertan antolatzen laguntzeko. Idazkaria bera gelditu da hortan ari diranekin har-emanen jartzeko.

A. Ismael Torres-en idazki bat, Salvatierra-tik, lehenago bere anaia zan A. Murieta-koak ateratzen zuen *Umeen-deia* berbiztu nahi duela adieraziz.

Cirilo de Zabala-ren gutun bat, “derrigor” euskeraz ongi esanda dagoan eta hitz jatorra den galdetuaz. Bere lehen sustraiak euskerazkoak ez badira ere, hitz asko bezala eta hizkuntza askotan gerta ohi dan bezala, gaur euskeran sustraitua dagoanez, ezin esan ditekeala euskerazkoa ez danik.

Euskeraren estudioa egiten ari den gaur, S. C. I.-aren txostena eta gertatu duten kuestionarioaren berri ematen da. Orain arte egin dutena,

bibliografiaren bjlketa izan da batez ere, eta hortarako izan dituzten har-emanak zelan eta nortzuekin izan dituztenaren berri emanez.

Langileen Kutxa Herrikoiaren (Caja Laboral Popular) gutun bat, beren bilera nagusirako deia eginaz.

Kerexeta euskaltzain laguntzailearen bidez Retana-ri egin genien konponketa baterako eskaintza, elkar aditze bide baterako. Jarri zan epea igaro da, Retana-ren aldetik erantzunik gabe.

Idazkariak aditzera ematen du, euskaltzain laguntzile baten denuntzia bat dagoela, Euskaltzaindikoen artean zabaltzen diren zenbait "anonimo"-ri buruz. Baina euskaltzain-buruak nahiago du isilik utzi, eskandaloak sortuko diren beldurrez. Idazkariak dio, besterik ezik, euskaltzainak bakarrik bildurik, baina gauza hau ondo aztertu beharrezkoa dala, batez ere sospetxaz Euskaltzaindiko batzuen izenak ahotan erabili diranez gero.

Aditzera eman da Ipar-Ameriketatik etorriak direla gure Hizkuntza eta kultura estuditza, gero han irakaskintza sortzeko asmoz.

Mokoroa jaunaren esaera-hiztegi lanari buruz mintzatu da, eta pozik jakin da jaun batek 100.000 peseta eman dituela lan hori argitaratzen laguntzeko. Eta, Euskaltzaindiak, Mokoroa jaunak bere lan hoiak aurrera eramateko, bere ordenako nagusieri gutun bat egitea komeni dala erabaki da, beste lanetatik uzteko eskaria eginaz.

Aditzera eman da Rudolf P. G. de Rijk euskaltzain laguntzailea Bizkaiko fonetikaz lan bat gertatzen ari dela.

Euskaltzaindiko hileroko bileren eguna aldatzeaz hitz egin da. Estornés jaunak dio, ostirala guzientzat egoki ez bada eta beste batzuentzat ere ez larunbata, hil batean larunbatez eta bestean ostiralez egitea izango dala onena. Datorren bileran erabakitzekotan geditu da. Eta, etorri ezin diranak idazkiz beren iritziak bialtzekotan.

Euzkerakzko liburuen katalogoa osatzeko fitxak inprentan atereak dira. Argitaratzaileen artean zabalduko dira, fitxa bat eredutzat beteaz igorritz; eta nahi duten partikular guztiak eskatu lezateke.

Lizundia idazkari-ordezkoak eman ditu Euskaltzaindiaren etxe-behritze gora-beherak eta hartu dan diruaren xehetasunak. Langileen kutxa Herrikoiak (Caja Laboral Popular) eman du gehien, 100.000 peseta. Eta dirua eman duten asko gertu daude urtera emaitza berdina egiteko.

Lur editorealekoak adierazi dute nola ari diren euskal hiztegi bat egiten, euskeraz adieraziaz; hau da, hiztegi euskerazkoa.

Euskaltzaindiaren euskal hiztegiari buruzko argitasunak datorren bilerarako uzten dira. Aste Santuan Mitxelena hemen izango danez, bera bilerara etorri ahal izango dalako.

EUSKERA 1969-kora lanak bialtzea. Haritschelhar jaunak eskeini zuen Etxahunen lanari buruzkoa, urre-etzteien bilera berezietako txosten eta hitzaldi eta abarrekin hornitzeko.

Idazkariak, kargu aldaketan epea igaro dala eta berritzea proposatzen du, Euskaltzaindiaren araudiari jarraituaz; eta aldaketak ez bada planteatu behar, bere dimisioa presentatuko duela datorren bileratik.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.